

36KO ERBESTEAREN EMAKUMEAK: AHAZTURAREN HARIAK BILDUZ

Jose Ramon ZABALA

-Hamaika Bide Elkarte-

Ziurtasunez, gure gizartean 36ko gerra ondorengo erbesteratuei buruzko inkesta bat egingo bagenu, lehenengo ezustea iritzi publikoaren ezjakintasuna izango genuke; bigarrena, ezagutzen diren gutxi batzuk horien artean emakumerik ez dagoela ikustea; edota izatekotan, emakume bakar bat izan zela: Dolores Ibaruri “Pasionaria”. Eta, jakina, erbesteran ibilitako izen handi horien artean Pasionariarena agertzeak ez du esan nahi sasi handitasun hori beti positiboa denik. Askorentzat oraindik Dolores deabruaren beraren irudia izan da eta horretan datza, hain zuzen, bere *aportazio* nagusia: gizonezkoen munduan gailentzen den emakumea, emakume ez ohikoa beraz, arriskutsua, sorgina, gaiztoa da. Irudi hori ironikoki oso ondo definitu du Andres Sorel idazleak (273):

¿Sabes, Dolores? Tú eras para nosotros algo infernal, la mujer más puta y sanguinaria de la historia, que además vivía en el propio infierno, en Rusia, sobre la que un día el Dios del Sinaí volvería a derramar azufre y fuego para reducir sus cimientos y no dejar ni rastro de sus habitantes.¹



Dolores Ibarruri bere bilobarekin

aukeratu dute,² eta haien bila ibilitakoei sarritan ez diete kasik hitzik ere ez kontatu.

Isiltasuna zein bazterketa dela, azkenik gauza da dugun urte haietako irudia oraindik orain ongi osatu gabe dugula. Garaiko argazkiak aztertuta edo aldizkariak zein liburuak irakurrita, emakume gehienak ezkutuan gelditu izan dira; eta agertzen zirenak ahanzturaren haizeak berehala ezkutatu egin ditu. Hori dela eta, nolabait, zor historiko hori ordaintzeko garaia aspaldian etorri dela pentsatzen dugunok asko gara. Ez bakarrik Dolores, bere kontraesan guztiekin, euskal emakume handi bat izan zela esateko, baita ere konturatu gabe galtzen ari garen beste emakume askoren oroimena eta lana berreskuratzeko eta gure memoria kolektiboan ondo gordetzeko ere bai. Baina non zeuden emakume horiek? Ikus ditzagun horietako batzuk, aldi berean erakusteko ziur asko beste asko daudela oraindik urte haietako gertakizunetan eta gerra ondorengoetan ahaztuta.

Emakume milizianoak

Irungo hilerriak euskal emakume eta gizon milizianoen oroigarri bat gordetzen du; bertan, Pikoketan fusilatutako hamazazpi gudarien izenak azaltzen dira, tartean hiru emakumeena: Mertxe Lopez Cotarelo, Pilar Vallés eta La Riojana ezizeneko hirugarrena. Gurean ez ziren beste nazioetan izandako beste hainbeste emakume armatua, hasiera-hasieratik hemen nagusiak ziren alderdiek aurkako jarrera azaldu

Dolores aparte, ia inor. Frankismotik ihesi ibili ziren artean ez zeuden emakumeak, ezta ere frankismoaren aura ibilitakoen artean. Jakina, hori gezur historikoa dugu baina ezin da esan harrigarria ez denik. Garai haietako gizona protagonista asko eta asko memoriak idatzi egin dituzte, besterik ez bada liburuak, artikuluak, elkarrizketatuak izan dira, omenduak, hedabideetan agertu dira... Mugimendu berean ibili ziren emakumeak, aldiz, neurri handi batean behintzat, isilduak izan dira edota isiltasuna

baitzuten, baina, hala ere, haien presentzia nabaria izan zen. Milizianak, gizonezkoak bezala, errepublikaren aldeko borroka aktiboan parte hartu nahi zuten, eta, batez ere lehenengo momentuan, haiekin batera mendira atera ziren. Pikoketako posizioan akabatu zituzten emakumeak oso gazteak ziren, hogeit hamar urte baino gutxiago zuten, eta ideologikoki komunistak omen ziren. Mikel Rodriguez idazleak gertakizun haien inguruko datuak bildu ditu, artean gertakizunen testiguak izan ziren batzuen, besteak beste, Francoren aldeko karlisten kapilau zena, Policarpo Cía-rena: “lo más escandaloso fue lo de esas furcias: burlándose de Dios, levantaron el puño y gritando ‘Viva Rusia’ recibieron la mortal descarga” (Rodríguez 4).

Mikel Rodriguezek berak beste testimonio batzuk jaso ditu. Horrela, Astigarragako bentan anarkista donostiar bat hil zuten, Mercedes Martin, hamasei urteko neska. Billabonako Ana Sainz, anarkista ere bai, Irunen borrokatu zuen eta, azken momentuetan, Bidasoa ibaiaren bidez lortu zuen Lapurdira ihes egitera. Donostiako Casilda Hernaez, Felix Likinianoren laguna, beste emakume libertarioa, hauen artean ezagunena, Aiako Harriaren borrokatu zuen: “En el episodio de Peñas de Aia nos encontramos las milicianas, no muchas, pero demasiadas, porque con la mayor parte se ensañaron los requetés”. Beste kasuetan, Mikelek dioenez, emakume haien izenak betirako galdu dira, esaterako Arrieta inguruan, Sollubeko borroka ondoren agertu zen hilotzarena... Beste emakume milizianoa Maria Garmendia Berasategi izan omen zen, hau Donostian hildakoa...

Gerra aurrera ahala emakume guztiak frontetik erretiratuak izan ziren, beste motatako lanetan egokitzeke. Dena dela, ondoren ere izan ziren milizianen testigantzak, adibidez Arrasaten. Aldi berean, atzeguardian, beste emakume askok gainean hartzen zuten erien laguntzaren zama, umeen eta errefuxiatuen laguntza, gizarte laguntza, eskolen antolaketa...

Emakumeak atzeguardian

Zalantzarik gabe arlo horretan protagonismo nagusia 1922ko apirilean sorturiko Emakume Abertzaleen Batzarrarena izan zen. EAJren emakumeak, nahiz eta ideologia tradizionalista baten defendatzaileak izan,³ emakumearen lana gizarteratzeko prozesuan aurrera pausu handi bat eman zuten. Ekimen hori ez zen gerraren galerarekin batera akitu: Euskal Herritik lehendabizi Kataluniara, ondoren Penintsulatik kanpoko erbestera

eraman zuten laguntza azpiegitura hori; horrela laburtu du prozesu hori Laura Uruburu irakasleak (1):

1936 urtez geroztik ere, erbestean, Frantzia, Belgika eta Katalunian lehenengo, eta Txile, Arjentina, Uruguay eta hego Amerikako beste lurraldeetan gero, lanean jarraitu zuela, nahiz baldintza kaskarragoetan eta egitura ahularekin.

Uruburuk bereziki Katalunian eginiko lana azpimarratu du (4):

Hainbat lekutan garatu zuen bere lana (EAB), baina batez ere Katalunian egindakoa da aintzat hartzekoa; Alderdi Jeltzalearen ideien zabalkundea, kultura-lana, giza arazoetako laguntza eta ohiko ekintzez gainera, euskal emakume errefuxientzako etxea sortu zuten han. Eta euskarazko ikastaro bat antolatu ere bai.

Eta lehenengo ekintza Bartzelonatik emakume euskaldun guztiei deialdi zabal bat egitea izan zen (Larrañaga III, 67):

Erdu, emakumea, gure Aberri bai du gaztien nekean bearra. Gure gudari, gaixo, elbarritu, aur eta emakume beartsuei laguntza, poza ta atzegiña opa eta kolkoratu dezayoun onenbeste negar da okerren garratzazunak gozatuak. Agur!

Nolabait haien funtzionamendua ulertzeko Concha Azaola⁴ erbesteratuaren hitzak aipa ditzakegu: “En la Junta de Emakume Abertzale Batza cada una formaba como una especie de comisión. Una era la de Hogar, otra Cultura, otra Folklórica, otra Caridad...”. Beraz, planteamendu tradizioaletatik abiatutako mugimendua izan zen EABrena, modu batez garaiko klase ertainek eskatzen zutena; hala ere, emakume abertzaleentzat benetako aldaketa bat suposatu izan zuen ezen horren bitartez emakume haiek modu batez protagonismo publiko berri bat eskuratzen baitzuten, hasierako gidoian jasota ez zegoena, alegia (Amezaga 253-254):

Es curioso además constatar que cuando se examina la obra de Emakume Abertzale Batza no se insista en lo que puede considerarse su punto fundamental: en el extraordinario empuje que significó para las mujeres de este país, y el gran entusiasmo con que desarrollaron sus tareas en la medida de sus posibilidades, constituyendo un bloque compacto.

Eta nahiz eta beste irudi zabaldua izana, emakume haiek haien fedearen aldarrikapenarekin batera, baita ere lan egin zuten lubakietan eta, beste ideologiengatik emakumeekin batera, ezagutu zuten baita espetxea eta erbestea ere (254):

Ellas cavaron también trincheras, fueron condenadas a muerte y a trabajos humillantes, y si se habla del exilio tenemos como característica principal y más desgarradora, la salida de familias enteras, es decir, la mujer aceptando el riesgo de mundos extraños donde sólo podían esperarle el trabajo y la aventura.

Emakume Abertzale Batza erakundearen barruan asko izan ziren ezagunak egin ziren emakumeak. Batzuk aipatzeagatik, bereziki Euskal Herritik kanpo lanean jarraitu zutenak, hor ditugu Sorne Unzueta, Hydée Agirre, Teresa Azkue, Maria Iturriaga, Angelita Bilbao, Miren Irujo, Maria Teresa Kalzedo, Maria Basañez, Karmen Errazti, Miren Nekane Legorburu, Julene Urzelai...



Sorne Unzueta

Emakumeak erresistentzian

Baina gizaldekoko laguntza ez zen emakumeen ekimen arlo bakarra. Horietako emakume franko erresistentzian eta klandestinitateko borrokan integratu ziren. Hori izan zen, adibidez, Elisa eta Josefa Uriz-en kasua. Komunista eta feminista nafar hauek, gerra ondoren Ameriketara joateko aukera izan arren, Parisen gelditu ziren nazien aurkako makiekin kolaboratzeko asmoz. Talde hura Partit Socialista Unificat de Catalunya buruak ziren Josep eta Conrad Miret anaien zuzendaritzapean zegoen; taldean Uriz ahizpek prentsaren argitalpenaz arduratzen ziren. Tamalez, Gestapok taldea identifikatu zuen eta bi anaiak akabatu zituen, Conrad torturatuta eta Josep Mauthausen kontzentrazio esparruan. Hala ere, Elisa eta Josefa sarekatik kanpo gelditu ziren eta borroka aktiboan jarraitu zuten Pariseko liberazioa lortua izan arte.

Izan ere, beste erresistentzia mota izan baziren eta haietan ere emakumeek lan garrantzitsua bete zuten, besteak beste, iheslariei laguntzen edota espioitza lanetan. Bigarren honetan ospe bereziak lortu zuen Santoñako espetxeko presoekin informazio trukatzeko EAJ alderdiak antolatu zuen sareak; bertan lau emakumek bete zuten presoekiko harreman zuzena: Bitxori Etxeberria, Iziar Mugika, Tere Verdes eta Delia Lauroba. Azken honen biografia izugarria da: bere senarra, Jose Azurmendi, EAE-ANV alderdiko kidea, espetxeratuta zegoen eta, horretaz baliatuz, hasi zen bere komunikazio lanean. Iruñeko San Kristobal gotorlekuko ihesaldia gertatu zenean, errepresalia moduan, frankistek preso batzuk fusilatu egin zituzten, haien artean Azurmendi. Egun hartan, bestetan bezala, Delia espetxera joan zen eta sarreran, non eguneko fusilatuen zerrenda iragartzen zen tokian, senarraren izena ikusi zuen. Hala ere, barrura sartu zen eta egun hartan egin behar zituen aginduak bete egin zituen; behin bukatu ezkerro, kalera atera zen berriro eta, han, kale erdian, konortea galdu zuen.

Gertatuta gertatutakoa, hala ere, Deliak klandestinitatearen lanean jarraitu zuen, 1937ko urriaren aurrean benetako sarea moduan, informazio eta materiala alde batetik bestera eramaten.⁵ Zoritxarrez, 1940, alemanek Pariseko Jaurlaritzaren bulegoetan sareari buruzko informazioak aurkitu zituzten eta, ondorioz, frankisten sarekada antolatu zen. Urte bete geroxeago frankistek hogeita zortzi pertsona atxilotu zituzten. Madrilera eramanak eta sasi epaiketa baten ondoren, haietatik hemeretzi, haien artean aipatutako lau emakume, heriotza zigorrera kondenaturik izan ziren. Epaietaren gorabeherak Deliak Arantza Amezagari kontatu zizkion (270):

El día del juicio, cuando entramos las mujeres en la sala, fuimos recibidas por nuestros compañeros con el himno de Euzkadi. Nosotras contestamos con el “Jaiki, jaiki, Euskaldunak”... No es fácil imaginarse eso, en aquella sala tan sombría y con las penas de muerte sobre nosotros.

Sententzia ezagutu eta hilabetera zigorrak espetxealdiekin konmutatu zizkieten, Luis Alaba-ren kasuan izan ezik. Alaba 1943ko maiatzaren 6an fusilatua izan zen; beste askotan bezala Francori eginiko heriotza zigorra konmutazeko eskaerak ez zuten diktadorearen onespina lortu (Barriola 205).

Dena dela, ezagunena Comet izeneko sarea izan zen. Hau mugalari eta hauen kolaboratzaileen sarea zen mundu gerran mugaren bi aldetan iheslariei laguntzeko antolatua. Sare hori esker asko izan ziren salbatu ziren soldadu aliatuak eta iheslari politikoak. Taldearen partaide ugari emakumeak ziren, besteak beste, Maritxu Anatol irundarra.

Emakume politikariak

Hau izan zen beste askok hartu zuten edo, hobeto esanda, jarraitu zuten bidea; jarraitu ezen, orokorrean, gerra aurreko garaietan hasitako ibilbidean kokatzen zen-eta. Arlo horretan dezente dira aipatu daitezkeen izenak, ezagunena zalantzarik gabe, lehen aipatu dugunez, Dolores Ibarruri. Gallartako alabak bizitza osoa gorde zituen bere sineste sendoak, beti PCE barruan ideologia komunistaren alde; horrela azaldu du hau Alberto Barandiaranek (215):

1983an, Carrillok jada dimisioa aurkeztuta, PCE maldan behera, Ignacio Gallegok alderdi sobietarzalea eratu zuenean, berak, sobietarzalea inon bazen, PCEn jarraitzea erabaki zuen. 1920an sartu eta 1989an hil zen arte bertan jarraitu zuen.

Pasionaria bai gerra garaian bai ondorengo frankismoaren aurkako erresistentzia luzearen benetako ikurra izan zen eta, ondorioz, Doloresen mitoa sortu zen. Haren ahotsa, zailtasun guztien gaineratik, idazlanen eta *Pirenaica* irratiaren uhinen bitartez zabaldu zen penintsulan zehar. Paradoxikoki, emakume honen garrantzia hobeto neurtzeko haren aurka sortutako irudia, egun oraindik eskumuturra zabaltzen duena alegia, besterik ez dugu aztertu behar. Adibide moduan Federico Jimenez Losantos hitzak jaso ditzakegu. Hona hemen adibide batzuk:

Si singularidad iconográfica oculta una nulidad intelectual casi absoluta. Fue una adaptación celtibérica del estalinismo. Estuvo a punto de meterse a monja. En el 68 suscribió una tibia crítica a la invasión de Checoslovaquia. Apoyó con entusiasmo las masacres de los demócratas alemanes, húngaros o checos.

Lerrook eta ondoren datozen beste hirurak ez daude 1936an idatzita, 1998an baizik. Artikuluaren izenburua ere argigarria gerta daiteke: “Dolores Ibarruri, Pasionaria: La *Carmen* de Stalin”. Hainbeste urte pasa ondoren frankisten oinordekoen horrela

deskalifikatzen saiatzen badira, helburu horrekin gezurrak eta guztiz erabiliz,⁶ horrek ez du zalantza izpirik uzten emakume honen garrantzi historikoa adierazteko. Azken buruan, Pasionariaren mitoa eta antimitoa.

Baina Dolores ez zen emakume politikaria bakarra. Adibide gisa beste izen bat aipatuko dugu: Julia Alvarez Resano. Berea beste biografia gogorra eta etsigarria dugu. Nafarroako Villafrancan jaiotakoa, Espainiako kongresuan eseri zen lehendabiziko emakume nafarra izan zen; horri esker erreketek *La puta del Congreso* gaitzizena jarri zioten (Egaña 37). Sozialista sutsua, feminista eta internazionalista, bere ideiak garaiko Euskal Herrian indarrez defenditu zituen eta hori ez da gutxi esatea, batez ere kontutan hartzen badugu Nafarroan integrista izan zuten indarra. Gerra garaian Ciudad Realeko gobernadorea izan zen, Espainiako lehendabizikoa. Urte bete beranduago bere senarra, Amancio Muñoz, sozialista ere, gaixotasun larri baten ondorioz hil zen. Juliarentzat gerra ez zen 1939an bukatu: erbestean jo eta ke haren utopiaren alde jarraitu zuen lanean erresistentzian zein atzerriratuen laguntzan. Baina, oso ohikoa izaten denez, etsai nagusiak bere alderdi barruan zituen; akusazioa ez zen nolana hikoia: komunisten kolaboratzaile izatea. Poliki poliki alderdiaren gutxiengoan joan zen gelditzen. Toulousetik *El Socialista* aldizkariaren edizio heterodoxo bat zuzendu zuen, eta, orrialde haietatik sozialisten batasuna defenditu zuen. Azkenik, dirurik gabe eta bere osasuna nahiko afektaturik, Mexikora joatea erabaki zuen, 1945ean, hiru urte geroago bertan hiltzeko. 41 urte zituen.

Aldi berean, mundua aldatzen ari zen eta berarekin ideologiak. Azpimarratzekoa da, adibidez, emakume nazionalisten artean ematen ari zen prozesua genero kontzientziaren bidean. Hau oso ondo ikus daiteke 1943ko irailean Londresetik zabalduko "A las mujeres vascas" izeneko agirian. Testua bertan antolatutako Emakume Asanbladaren bost partaidek sinatutakoa zegoen (Lauri Puerta, María Teresa de Larrucea, María Cruz Fernández Zubelzu, Ana Gabarain, Dorothy Clark eta Miren Irujo) eta mundu osoko euskal prentsak jaso egin zuen. Agirian, batetik, Emakume Abertzale Batzaren ideologia aztertu daiteke, baina bestetik ere elementu berriak ikusten dira. Esaterako, emakumea bertan subjektu aktiboa bezala azaltzen zaigu, ideologia gainetik problematika komun batekin. Euskal emakumeak mundu osoan sortzen ari

ziren emakumeen elkartean parean kokatu nahi ziren, gizarteari berezko ekarpen bat egiteko asmoarekin:

Aspiramos a más. Debemos vivir las asociaciones femeninas vascas en relación constante, en cuanto lo permitan las actuales circunstancias. Así lo hacen todas las mujeres del mundo. Nosotras no hemos de ser excepción. Tenemos no poco que enseñar a los demás, pero es mucho más lo que debemos aprender. No desdeñamos las lecciones de la experiencia, adquirida a costa de sacrificios inmensos, de lágrimas, de sangre y de sufrimientos, en cuyas emociones se funden todos los hombres y mujeres del planeta (2).

Mundu bat bukatzeaz zegoen eta hau beste zantzu bat zen.

Emakume irakasleak

Emakume hauen biografietan maiz erbestean maldan beherako prozesu baten hasiera aurkitzen bada –Julia Alvarez bezala, hor dugu Maria de Maeztu baten kasua, Argentinan azkeneko urte ilunak bizitzen- beste batzutan atzerriko bideek haien bizitzak aldatzeko aukera bat suposatu zuten. Aurora Arnaiz sestaoarraren kasua da horietako bat, alegia. Gazteri sozialisten partaidea, gerra hasierak Madrilen ikasle harrapatu zuen eta errepublikaren aldeko borrokan buru belarri inplikatu zen. Ondoren, Jose Cazorlarekin ezkondu eta hau Guadalajarako gobernadorea izendatuta, hiri horretan lekuratu zen. Berarentzat gerraren azkeneko hilabeteak benetako infernu pertsonal bat bihurtu zen. Frankisten garaipena gero eta garbiago zen; hori ikusita, Errepublikako gudarostearen talde batek, Casado jenerala buru, Francorekin negoziatzeko posibilitatea planteatu zuen eta, helburu horrekin, estatu kolpe bat eman zuen. Ondorioz, Negrinen gobernuarekin leialak izan zirenak errepresioa jasan behar izan zuten. Aurora, bere hilabetetako umearekin, etxe batean entzerratuta izan zen, senarra espetxeratzen zuten aldi berean. Egunak aurrera ahala, umea gero eta ahulagoa zegoen eta Aurorak mediku bat eskatzen zuen, erantzunik jaso gabe. Azkenik, umea hil zen. Errepublikaren erorketak, ordea, bikoteari uneko askatasuna eman zien. Hasiera batean beste iheslariekin batera Valentzia aldera joaten saiatu ziren baina garbi zegoen horrelako talde handi bat ezin zuela inora joan; bikotea, orduan, banandu zen: Jose Cazorla Madrilerantz itzultzea erabaki zuen, bertako klandestinitateko borrokan parte hartzeko; Aurora Arnaizek, bestetik, penintsulan zeharreko ibilbide luze bat hasi zuen harik eta Frantziako muga gurutzatu arte. Frantziatik Ameriketara eta, azkenik, Mexikora; bidean bere senarra, frankistek atxilotuta izan ezkeroko fusilatua izan zela jakin zuen.

Baina Aurora Arnaiz gaztea zen eta horri esker bere bizitza berrantolatzeko aukera izan zuen. Deretxoko ikasketei berriro ere ekin zien, Mexikoko Unibertsitate Autonomoaren irakasle leku bat eskuratu zuen eta aberatsa izango zen ibilbide bat hartu zuen. Gaur egun, oraindik, UNAMen klaseak ematen ditu, hogeita hamar liburu baino gehiago idatzi ditu eta mota guztietako sariak eta ohoregarriak jaso ditu. Nahiz eta igaro diren urteak, Aurorak bere burua euskalduna bezala ikusten du, “euskalduna eta espainiarra”. Franco hil ondoren, urte luzeetan, Euskal Herrira itzuli gabe egon zen; horrela azaldu zidan sentimendu hori telefonoz eginiko elkarrizketa batean: “no podía volver, eran demasiados recuerdos. Pero al final, me dije, tienes que ser fuerte, y volví. Ya nada era igual. Aquél no era el Bilbao que yo había conocido sino una ciudad muy bonita y moderna”.

Aurora Arnaizeren kasua, dena dela, ez dirudi orokortu daitekeenik. Alta, badago beste motatako irakaslea horrek bai garrantzi handia izan duena gure herriaren historia hurbilean: andereñoak. Batez ere euskararen irakaskuntzarekin lotura estua izan zuten emakume hauek erbestearen esperientzia ere, kanpoko lehendabizi barrukoa ondoren, sufritu zuten. Horrela laburtu du Gotzon Egiak emakume horien garrantzia (1):

Esan daiteke euskarazko irakaskuntza edo euskal eskolaren aldeko ahaleginekin batera sortu zela emakumeen aitzindaritasuna euskal irakaskuntzaren alorrean. “Andereño” izena noiz eta nola jaio ote zen? Ziur jakitea ez da erraz, baina lehen euskal ikasgela haietara bildutako ikasle urriek asmatu edo egokitua izango zen inondik ere. Ordotik hona, emakumeen ekarpena euskal ikastetxe, eskola edo ikastoletan gehiengo zabalez nagusi izateaz gain, ezinbesteko ere izan da.

Eta erbeste mota guztiak ezagutu bazituzten ere, Euskal Herritik kanpo ibili ziren batzuen izenak aipatuko ditugu hemen: Maria Dolores Goya, bere ikaslekin batera Britania Handira eta Frantziara joan behar izan zuena, Maritxu Barriola, Pilar Sansinenea, Julene Urzelai...⁷

Emakume artistak

Ziur aski beste artetan ere euskal emakumeen presentzia nabaria izango da, baina garai haietan erbestera musikaren munduan nagusitu ziren bereziki: Pepita Embil, Matilde Zabalbeskoa, Emiliana de Zubeldia, Lucinda Urruzti... Lehendabiziko

biek Euskal Gobernuak abian jarritako Eresoinka ekimenean hartuko dute parte. Eresoinka gerra garaiko ekimen propagandistikoa izan zen nonbait, Europan zehar euskaldunen egoera ezagutarazteko; helburu horrekin euskal kantak eta dantzak izan ziren adierazpideak. Gerra ondoren Pepita Embilen karrera ez zen bukatu: denborarekin Placido Domingoren ama izan zen getariarra, Ameriketako eskenatokietan opereta munduko solista ezaguna izan zen. Haren errepertorioan euskal kantek beti izan zuten txoko bat.

Emiliana de Zubeldia nafarraren kasuan, aldiz, egoera oso ezberdina aurkituko dugu. Gerra garaietan Emiliana piano kontzertista bezala oso ezaguna zen. Europako eskenatokietan ibili ondoren, Ameriketara joan eta han ere bere arrakasta handia izan zen. Kontzertuetatik kanpo, konposizio munduan bere burua ezagutzera eman zuen, lan polifonikoak eta sinfonikoak idatziz non euskal inspirazioa nabaria den. Gerra hasi orduko Emiliana Ipar Amerikan dago eta berehala adieraziko du errepublikaren aldeko atxikimendua. Bere erbestea, beste kasu askotan bezala, boluntarioa izango da. Augusto Novaro mexikarrarekin ezkondu, bizitzera Mexikora joan zen; kontatzen dute ostatatzen zen hoteletan beti errepublikar erbesteratu bat bezala azaltzen zela. 1954an Hermosillo hirian bertako unibertsitatearen Musika Akademia sortu zuen eta, gaur egun, oraindik, hango abesbatzak Emilianaren izena darama.

Emakume idazleak

Pentsatzekoa denez, emakume idazle batek baino gehiago ezagutu zuen atzerria. Haien artean garrantzitsuena, zalantzarik gabe, Ernestina de Champourcin gasteiztarra dugu, bere jaiotze urtemuga 2005. urtean ospatu zena, alegia. Ernestina Espainiako 27ko Belaunaldi ospetsuaren olerkaria izan zen, idazle punta horietako bat, nahiz eta belaunaldi horren argazki ofizialetan gizonaek besterik ez agertu. Gerrak Ernestina Madrilen harrapatu zuen; gasteiztarrak atzeguardiaren asistentzian lagundu zuen, bereziki umezurtzei. Juan Jose Domenchina senarrarekin batera erbesteko bidetara ekin zion, azkenik Mexikon finkatzeko. Han idazten eta itzultzen jarraitu zuen bertako bizitza kulturean parte aktiboa hartuz. Berrogeita hamar urtetan, ordea, sinismen krisialdi bat izan zuen eta, ondorioz, katolizismoan murgildu zen erabat, Opus Deiko aldekoa izan arte. Hori guztia bere poesian ondo asko islatuta gelditu da ezen urte horietatik aurrera gehien batean izaera erlijiosoko idatz lanak utzi egin baitzizkigu.

Beste idazleek beste motatako bideak aukeratu zituzten. Sorne Unzueta, esaterako, erresistentziaren lanari ekin zion. Cecilia Garcia de Guilarte, bestetik, gerra kazetari bezala ibili zen, ondoren, Mexikora joateko non bertako prentsan eta unibertsitatean ezagutzera eman zen. Horrela laburtu du Maravillas Villa kritikariak Ceciliaren urte haietako aktibitatea (18-19):

Orduan hasi zen bere lanaren boladarik emankorrena, eta 1963ko Gabonak arte bere erbeste fisikoa amaitu zen artean, eutsi zion maila horri. Irrati gidoilari; *Mujer* izeneko irratsaioaren zuzendari; nobela eta antzerki egile; literatur aldizkari baten zuzendaria; literatur kritikaria; irakaslea; eta, hala behar zuen eta, hainbat egunkari eta aldizkaritan kolaboratzaile, batzuk Ameriketara banatzen zirenak eta beste batzuk Euskal Herrikoak: *Gernika*, *Tierra Vasca*, *Euzko Deya*, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*...

Bestetik, nahiko ezaguna dugu Maria Luisa Elio nafarraren izena, erbesteari buruz eginiko lehenengo filmaren gidoigilea, *En el balcón vacío* alegia⁸. Emakume honen biografia eta esperientzia gordina izan zen baita ere. Haren une latzenak erreketek hartutako Iruñean hasi ziren; militarren kolpearekin batera aita, Luis Elio Torres desagertu zen eta, ondorioz, familiak (ama eta hiru alaba), ihes egiteko asmoz, mugaren bidea hartu zuen. Nafarroako muga inguruan guardia zibilek atxilotu egin zituen. 1937an, aske gelditu ondoren, Balentzia aldera lehendabizi, Bartzelonara ondoren joan ziren; ibilbide honetan bonbak, gosea eta eskasia ezagutu zuten. Errepublikaren hondamendiarekin, ebakuatuak izan ziren Frantziara non aitarekin berriro ere egingo zuten topo, hau kontzentrazio esparru batetik aterata. Eliotarrak, ondoren, Mexiko bidea hartu zuten. Han Maria Luisa abangoardiako antzerkian lan egingo zuen, aldi berean, hango bizitza kulturean bete-betean parte hartuz. ICAIC mugimenduarekin izan zituen harremani esker Kubako iraultzaren hastapena ezagutzeko parada izan zuen bertatik. Urteak aurrera joan ahala, Iruñera 1970. urtean itzuli zen baina bertan ezer ez zen gerra baino lehen, bere haurtzaroko paisaiak erabat aldatuta aurkitu baitzituen. Bidai horren ondorioak itzelak izan ziren: artistaren oreka psikologikoa puskatu zen eta, ondorioz, Mexikora itzuli behar izan zuen. Psikiatriko batean egon behar izan zuen bolada batean. Behin oreka berreskuratuta, buru belarri literaturan zentratuko da, interes handiko bi autobiografiak idazten: *Tiempo de llorar* eta *Cuaderno de apuntes*.



Pepita Altuna

Ezagunagoak diren izenekin batera beste asko ditugu; Tene Mujika, Polixene Trabudua, Errose Buztintza, Balendiñe Albisu, Maria Luisa Elio, Karmele Errazti, azken hau testu pedagogikoen eta umeei zuzendutako lanen egilea, Teresa Escoriaza kazetaria... beste idazleen adibideak dira. Euskaraz zein espainieraz ez dira bat bakarrik, ez, eta zaila egiten da hain ahaztuta nola gelditu diren ulertzera, nola ez duten aurkitu beren tokia kanon ofizialen barruan.

Hariak biltzen

Arriskurik gabe esan dezakegu ez ditugula erbestean lan berezia egin zuten euskal emakume guztien izenak ezagutzen, ezta gutxiago ere hemen haiek guztiak jaso. Zoritxarrez, bat baino gehiago galdu egin dugu urteotan. Frankismoak ezabatu ez zituen izenak, zapuztu ez zituen ibilbideak, gure axolagabekeriak ahanzturan baztertu egin ditu. Gutxi izan dira arlo horretan lan egin duten salbuespeneko ikerlariak. Horietako bat Arantza Amezaga izan dugu, bereziki *La mujer vasca* (1980) izenburuko liburuarekin. Gutxi ikerlariak baina eskasak ere bai askotan emakume horien publikoki agertzeko gogoak: sarritan ez zuten beren testigantzak zabaldu nahi izan, edota haiek beraien egindako lanak gutxietsi egin dituzte. “No ha querido hablar porque piensa que todo cuanto ha hecho no merece la pena ser contado” idatzi zuen, esaterako, Arantza Amezagak Manuel Irujoren emaztea izan zen Antoñita Etxarteri buruz; Antoñita erresistentzian lan egin zuen eta gerra ondoren ohore-domina bat baino gehiago jaso zuen, baina, hala ere, bere lana ez zuen beste merezimendurik behar edo horrela uste zuen berak behinik behin (249).

Gure historian eta kulturen hutsune asko daude, zalantzarik gabe, baina emakumeena txikiena ez da, bereziki 36ko kolpearen eta frankismo ondorengo balorazioa egitekotan. Erbestean gizonezko bezainbeste emakume ibili zen, haien biografiak gizonezkoenak bezain gogorrak izan ziren eta burututako lanak gizonezkoak bezain garrantzitsuenak, nahiz eta askotan beste arlotan garatuak izan, besteak beste, irakaskuntzan, itzulpengintzan, gizarte laguntza zerbitzuetan... Lan honen bidez hori

buruzko pintzelada batzuk ematen saiatu gara, ondare horren garrantzia modu xume batez adierazteko. Baina hau ez da ez laburpena ezta ere ikuspegi orokor bat, zintzilik dugun ikerketa horretako beste gonbidapen txiki bat baizik. Emakume haiei zor dieguna eskertzeko bai, baina baita ere, aldi berean, gure gizarteak behar dituen ereduak ezagutarazteko eta zabaltzeko. Jarrai dadila.

BIBLIOGRAFIA

ASKOREN ARTEAN. "A las mujeres vascas". *Euzko Deya. La Voz de los Vascos en México*, nº19 (1 de diciembre de 1943).

AMEZAGA, Arantzazu. *La mujer vasca*. Bilbao: GEU argitaletxea, 1980.

BARANDIARAN, Alberto. "Dolores Ibarruri Pasionaria. Bizitza eta política". Apaolaza Xabier, J.A. Ascunce eta I. Momoitio. Irurogei urte geroago. Euskal Erbestearen Kultura, II-2. Donostia: Saturrarán argitaletxea, 2000. 205-216.

BARRIOLA, Iñaki. *19 condenados a muerte*. Donostia: Ediciones Vascas, 1978.

EGAÑA, Iñaki. *Quién es quién en la Historia del país de los vascos*. Tafalla: Txalaparta, 2005.

EGIA, Gotzon. *Emakumea euskal irakaskuntzan (1922-1975)*. Bidegileak bilduma. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1997.

GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel (Coord.). *El exilio republicano navarro de 1939*. Pamplona: Gobierno de Navarra, 2001.

JIMÉNEZ DE ABERATURI, Luis. *Casilda miliciana*. Askatasunaren Aizea bilduma. Donostia: Txertoa, 1985.

JIMÉNEZ LOSANTOS, Federico. "Dolores Ibarruri, Pasionaria: La Carmen de Stalin". El Mundo, 1998ko martxoaren 8. Interneten: www.segundarepublica.com/index.php?id=37&opcion=2.

LARRAÑAGA, Policarpo. *Emakume Abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco*. Hiru liburuki. Donostia: Auñamendi, 1978.

RODRÍGUEZ, Mikel. "Mujeres en las trincheras". *Historia 16*, nº 349 (Mayo 2005): 12-29.

SOREL, Andrés. *El libro de los españoles no imaginarios*. Madrid: Libertarias/Prodhufo, 1994.

URUBURU, Laura. *Emakume Abertzale Batza (1922-1936)*. Bidegileak bilduma. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1997.

VILLA, Maravillas. "Sarrera". *Un barco cargado de...* Sarrera eta aukera Villa, Maravillas. Donostia: Saturrarán Argitaletxea, 2001. 13-31.

ZABALA, Jose Ramon. "36ko erbesteko emakumeak: Ahanzturaren hariak bilduz". *Zazpika 371* (2006): 24-31.

—. "Euskal emakumeak erbestean. Aurora Arnaiz / Vascas en el exilio. Aurora Arnaiz". Seminario Euskal Herria Mugaz Gaindi II. 17-V-2005. En línea:

http://www.euskosare.org/komunitateak/ikertzaileak/ehmg_2_mintegia/txostenak/emak_umeak_erbetean.

— “Aportación intelectual del exilio femenino vasco de 1936 en México” en Rosa FERNÁNDEZ URTASUN y José Ángel ASCUNCE, editores: *Ernestina de Champourcin. Mujer y cultura en el siglo XX*. Madrid: Biblioteca Nueva, 2006.

— “Exilios y retornos de Aurora Arnaiz Amigo”. *Ojáncano. Revista de literatura española*. N°31, abril 2007: 81-99.

¹ Eskuinak eraikitako Irudi horren aurrean Andres Sorelek beste desberdina erakusten du oso (276): “no era mujer (...) sino una madre que frente a todos los que habían llenado su boca de insultos y maldiciones para referirse a ella, nosotros, niños silenciosos y desamparados, la habíamos considerado como una imagen protectora de nuestro desvalimiento que un día acudiría a salvarnos”.

² Dena dela izan dira zenbait emakume haien memoria idatzi dituztenak, besteak beste Dolores Salis, Aurora Arnaiz, Maria Asunción Amibilla, Pasionaria bera... Izan ere, azkenekoarena izan ezik memoria hauek oso berandu argitaratu dira eta, orokorrean, ez dute oso zabalkunde handia izan.

³ Tradizionalismo hori Arantza Amezagak zehaztu eta kritikatu egin du. Idazle honen esanetan EABren ideologia ulertzeko garaiko ideologia aztertu behar dugu, eta, ikuspuntu horretatik, ezin da esan, inolaz ere ez, emakume haiek atzerakoiak zirenik (253): “Se ha insistido demasiado en la leyenda negra de Emakume Abertzale Batza. (...) se les ha tildado de conservadores y reaccionarios, sin detenerse –sea o no con premeditación- a pensar que estamos examinando la doctrina y el lenguaje de un pueblo de principios de siglo, cuando todavía en Inglaterra las sufragistas luchaban por los derechos femeninos y en muchas de las mejores universidades europeas rechazaban a la mujer por su sola condición de mujer”.

⁴ Aipatzekoa da Concha Azaola Biarritzen erbestera zegoelarik, alderdiak berriro ere penintsulara itzultzeko eskatu ziola, Katalunian EABren antolaketari ekiteko, eta horrela egin zuela emakume honek: Lapurdiko lasaitasuna utzi zuen Bartzelonako nahasmenean bere ideien alde lan egiteko (Larrañaga III, 65).

⁵ Iñaki Barriolak, sare bereko partaidea, horrela azaldu zuen hauen lana (15): “El trabajo de enlace estaba repartido así: Delia Lauroba recogía las informaciones, entre ellas las importantes que conseguía María Teresa Verdes, y las pasaba a Itziar Mújica (Donostia) quien las entregaba a Bittori Echeverría (Elizondo), encargada de ponerlas en manos de los que las esperaban en Euzkadi-Norte. Estas eran las cuatro resistentes que luego, durante su largo encierro, fueron conocidas como las cuatro vascas, y el primer caso en la historia de la mujer vasca condenada por tribunal militar”. Liburu berean Barriolak emakume hauen ekintzei buruzko informazio asko ematen du.

⁶ Eta “gezurraren” kalifikazioa ez da oso gogorra kontuan hartzen badugu “nulidad intelectual” delako horrekin ehunka artikulak, hitzaldiak eta liburuak idatzi dituen emakume bat definitzen ari dela. Artikulu osoa dago aipatutako “perlen” antzeko baieztapenez beteta; hona hemen adibide batzuk: “su nombre es más conocido que el de cualquier mujer realmente importante en la cultura o la política”, “ha tenido la veneración de una parte de nuestro pueblo y concitado el odio de otra parte mucho mayor”, “fue vulgar hasta la sumisión”, “una rebelde de lo más obediente”, e.a. Antza, errespetuaren kontzeptua ez dago oso landuta eskuineko idazle askoren artean.

⁷ Hauekin batera aipatzekoa da euskararekin lotura izan ez zuten beste andereñoak izan zirela, batez ere erbestera zihozten umeekin batera joan zirenak, hauei laguntzeko asmoz. Pepita Altunarena izan zen horietako bat.

⁸ Filma hau Jomi Garcia Ascot-ek zuzendu zuen, garai hartan Maria Luisa Elioren senarra, 1962.urtean. Gidoiak, neurri handi batean, oinarri autobiografikoa du. Aipatzekoa da filmak zenbait nazioarteko sari jaso zuela, besteak beste, Kritikako Saria Locarnoko Zinemaldian.